

**ASKATASUNAK LARROSA USAINA DU,
BAINA...**

Garazi Ansa Arbelaitz, 15 urte

Oiartzun

1938ko urriaren 22a

Nelly maitea:

Egunak igaro dira, zu nire eskuetara iritsi eta lehen hitzak iskribatzen hasi nintzaizunetik. Ez zitzaidan otutzen nire lehenengo egunerokoari nola deitu, izan ere, hauek, gure antzera, bizimodu xume baten ondoren, zahartu eta hil egiten baitira. Eguneroko baten bizitasuna jabeak idazten dituen pasarteetan datza, eta pasarte horiek bukatzearekin batera, egunerokoa ere isilik, bizi barik, hilik geratuko litzateke. Gainera, egia esan, ez zintudan halabeharrez aukeratu, izan ere, zure ordez beste edozein orri ere aukera bainezakeen, baina, norbait behar nuen, norbaitek nire arazoak entzun zitzaizkan, norbaitek nire zauriak senda zitzaizkan, norbait nire egoeren jabe izan zedin eta ziur jakin ere norbait horrek kontaketa guztiak gordeko zituela, betiereko giltzapean.

Nadine Börne

1938ko urriaren 23a

Nelly maitea:

Nire arazo eta kezkez hitz egiteko unea iritsi delakoan nago. Zail egiten bazait ere, zeuri nire gertaren berri ematea, gehiago itxaron gabe, nire bolalumen euri tantez hornitzea erabaki dut. Nolabait zure orri horizontatu eta hutsekin identifikatzen hasia bainaiz, ene bihotza ere egoera berberean aurkitzen hasia delako. Jada ez du inork nire bihotza maitasunez ezitzen. Nire bihotza bakardadearen esklabo bilakaturik, milaka negar tanta jausten dihardu unero. Ahizpa zaharragoak, egun guztia telefonoari itsatsirik igarotzen du, bere mutilarekin hitz egiten: “zenbat maite zaitudan.” “Bihar ere geldituko gara?”. “Muxu pila, maite zaitut”. Eta ni ez al nau maite? Niretzat ez al du muxurik gorderik? Nire gurasoek ere ez dute ni maitatzeko betarik, izan ere, egun guztia telebistari so edo ingurukoekin isilka hitz egiten jarduten baitute, nazionalsozialisten gorabeherak direla medio. Orain, Nelly zuri ematen dizut ene bihotza maitasunez estaltzeko aukera.

Nadine Börne

1938ko urriaren 25a

Nelly maitea:

Etxean ez dago batere giro onik. Berehala sartu naiz nire logelan, egoera jasanezin horretatik isolatzeko asmotan. Baina ezinezkoa da, gure etxea bere osotasunean infernu gorritan baitago; nire gurasoak ahizparen mutila nazionalsozialisten

alderdikoa dela ohartu baitira. Eta ohartu ere, arriskuan gaudela berriro, arriskuan, etsaiaren eskuetan preso erortzeko, egunak baitaramatzagu otsoaren atzaparretatik ihes egin nahian. Hitler entzuten da irratitik, dena isildu da bat-batean, eta bere hitz bortitz eta menderatzaileek oihartzuna egiten dute etxeko horma zahar monotonoetan. “Beren arrazakoen garbitasunari uko egiten dieten herriek, beren arimari ere uko egiten diete era berean... Odolaren garbitasun ezak, barneko zoriontasuna galbidera darama, gizakiari betiereko gutxiespena ematen dio eta bere gorputz zein moralaren ondorioak ezabaezinak dira.” Bere hitzaldia etxeko ate nagusian entzun diren kolpe gogorrekin batera isildu da.

Judu ezezagun batzuk ziren, berri garrantzitsuren batzuekin seguru aski.

Nadine Börne

1938ko urriaren 26a

Nelly maitea:

Egia esan, ez dut oso ongi ulertu etxea uztearen zergatia, baina gurasoek diote, nazionalsozialistak gure bila dabiltzala. Dagoeneko, gure moduko mila-ka eta milaka judutar espetxeratu eta torturatu dituztela. Ikaraturik nago. Beste gerra bat hasiko delakotan gaude. Gure auzoan, bost familia judutar bizi gara eta hamar egun barru ihes egiteko asmoa dugu hemendik, denak batera, kaosa atzean utziz, bizi berri baten bila. Apaiz batzuk ezagutzen omen dituz-

te eta horien etxean egon gaitezkeela esan dute denboraldi batez, ihesaldia ongi prestatu arte behintzat. Aitak nire ahizpari ere bere mutilaz ahazteko esan dio eta gehiago deirik ez egiteko, eta ez agurtzeko ere erregutu dio. Gaixoa, berehala gelan giltzapertu da. Negar zotinak entzun ditzaket oraindik nire gelatik. Etxean telefonoak jotzen bazuen ere ez hartzeko esan digute, eta azken hitz hau idaztearekin batera hasi da joka. Amak irratia piztu du, hotsa ezkutatzeko asmotan nolabait. Berriro atzoko ahots maltzurra dario makina hitzunari, eta gelako atea itxi dut ez entzutearren. Ondoren gelan musika ipini dut ozen, eta gauza garrantzitsuenak jasotzeari ekin diot, bidaiari hasiera emateko asmotan.

Nadine Börne

1938ko urriaren 28a

Nelly maitea:

Orduak igaro dira nire gorputza ohe gainean etzan delarik eta loak ezin harturik hamahiru udaberri zorionsuenak igaro ditudan herria uztear bainago, nire bihotzeko lagunak agurtzera eta horrenbeste maite ditudan iluntzeko osteratxoak ene oroitzapenean giltzapetzera. Leihora zuzendu dut neure begirada eta kale bazterretako farola biluzien begiradak ikusi ditut. Urrun sirena hotsak entzun ditzaket, berehala bihotza taupada bizian ipini zait, bularretik irtengo zaidala dirudi. Urduritasuna da nagusi, urduritasuna eta beldurra.

Nadine Börne

1938ko urriaren 29a

Nelly maitea:

Espetxe batean bizi garela dirudi. Etxeko leihatila guztiak itxirik ditugu eta gurasoek kalera irtetea debekatu digute. Bertan, nazien kamioiak dabilta hara eta hona. Lehenik, judutarrekin, ijitoekin nahiz emagalduekin betetzen dituzte, eta urrun, urrun eramaten dituzte, kamioi herdoildu horietan, zerriak bailiran, gizakion begiek antzeman ezin ditzaketen mugetaraino. Baina kamioi horiek berriz itzultzen dira, itzuli ere, gehiagoren bila, huts-hutsik, arima galdurik ere agertzen ez delarik haietan. Non egongo ote dire eraman dituzten preso guztiak? Geure auzora ere iritsi dira jada lehenengo garraioak, kale honetako 1. zenbakia duenerantz zuzendu dira, eta atea ostikoz bota dute. Emakume baten txilio hots ozena nabarmendu da, ondoren tiro hots sakon bat. Pun! Eta emakumea negar zotinka. Pun! Beste tiro hots bat. Dena isilpean. Gero, naziak etxetik atera dira, belarra daramatela soinean dirudite, gurutze antzeko irudi beltza dutelarik besoetan. Nazkagarriak! Gu baino arraza nagusiagokoak direlakoan daude, baina ez dira ohartzen gizakion artean ez dagoela mailaketarik egiterik, guztiak berdinak baikara, guztiak ahalguztidunaren semeak. Arrazista nazkagarriak! Honela doaz, Hitlerrren morroi finak auzoko etxe guztiak ustiatu nahian. Gure plana ere hankaz gora ipini dute, baina oraindik ere ihes egiteko asmoa dugu, gu ez baikara erraz utziko etsaia-

ren esku zikinek harrapa gaitzaten. Geure etxeko atea kolpatu dute jada. Bigarren egitasmoari hasiera emateko unea iritsi da.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 1a

Nelly bihotzekoa:

Oso nekaturik nago, beldurturik, eta erabat ikaturik! Azken egun hauek inoiz igaro ditudan gogorrenak izan dira. Herritik ihes egin genuen eguna inoiz nire oroitzapenetatik baztertuko ez delakoan nago. Etxera sartu zitzaizkigun nazi faxista horiei bizitza eten genien, heriotzaren magalean utzi genituen, beraiek egin ohi zuten moduan, tiro sakon, gupidagabe banarekin buruan. Ondoren hilotzei arropa erantzi genien, eta guk geuk ipini genituen oharkabean igarotzeko. Handik hiru ordura igo ginen, kaxa zahar gurgildunera, bertan daramatzagularik, beste hiru bat egun gutxi gorabehera. Denbora motel doa, hemen, segundoak, minutuak dirudite, eta egunak hogeita lau ordu eduki beharrean, hogeita hamasei. 6m²ko zerritokian gaude espetxetaturik, bost familia, guztira hamabi gizon-emakume. Egun guztiak guztiz monotono eta aspergarriak dira.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 2a

Nelly maitea:

Gaur iritsi gara apaizen etxera. Apaiz nagusiak

Emile Sachs du izena, eta apaiz guztien moduan diru eta boterezalea da bera. Etxeak jauregia dirudi eta mendi magalean dago kokaturik, zuhaitz biluzien pean. Alemanian dago kokaturik, baina Danimarkatik oso hurbil. Gurasoek diote, bertara iristean, hangoek laguntza eskainiko digutela, honela, itsasontziren batean ontziratu eta Suedian zoriontsu bizitzeko. Gure gurasoen hitz hauek nire eta ahizparen bihotzak itxaropenez leherrarazi zituen berriz ere, aspalditik ikusi gabeko esperantzaren irria azalduaz ezpainetan. Apaizek oso jatorrak dirudite eta jauregiko atzealdeko logeletan ipini gaituzte aldendurik. Bertan igaro behar ditugu orain egunak, inora irten gabe, beraiek ekarriko digutelarik eguneroko ogia hona. Logelak antzinako garaietako kartzelen itxura du, itxura hotza eta tamalgarria. Bertan espetxeraturik denbora izango da gure arerio nagusia.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 4a

Nelly maitea:

Jada bi egun luze igaro dira honetan gaudelarik, leihotxo bat badu, baina bertatik sartzen den argi pobreak ez ditu geure aurpegi zurbilak argitzen. Ez da ezer gertatzen hemen, denak baikaude urduri, beldurturik, isilik. Karta jokoan ibili gara pixka batean, baina argitasun faltagatik berehala utzi dugu alboan. Nola bukatuko ote da geure bidaia? Bizirik iraungo ote dugu? Hauen antzeko mila gal-

dera ditugu guztiok geure buruetan nabigatzen, baina aipatzen ere ez gara ausartzen, beldur baika-ra, beldur iluntasunaren zulorik sakonenean amaitzeko. Nire ahizparen alboan nago, kizkurtu-rik. Elkarri bero apur bat eman nahian gabiltza, izugarrizko hotza egiten baitu harrizko horma heze hauen altzoan. Ahizpak bere mutilaren argaz-ki zahar zimurtua du eskuartean, eta honi laztanak eta muxuak ematen hasi zaio. Begietatik kristal malkoa erori zaio, maiteminak sorturiko negar malkoa. Ondoren elkarri begiratu diogu, konplizi-tateak sorturiko begirada umilarekin eta elkar besarkatu dugu gogor, sutsuki.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 6a

Nelly maitea:

Gaur zorionsu iratzarri naiz. Izan ere, ilunaba-rra iristean, gauak babesten gaituelarik, ihes egin-go baitugu Danimarkarantz laguntza eske, beraz, gauzak jasotzen ari gara une honetan. Beste egun aspergarri bat dator bidean, baina itxaropenez beterikoa ere bai, izan ere Danimarka baita geure askatasuna ziurtatzeko beharrezko dugun lehen urratsa. Bat-batean, izugarrizko kamioi eta motor burrunba entzun da etxe atarian. Guztiak aztoratu gara segituan, bertakoek ez baitute motordun garraio zerbitzurik eskura. Denak isil-isil eta geldi-geldi gelditu gara. Eta ate hotsa entzun dugu ondo-ren. Gero, pausu azkar eta sakonak, orduan eta

hurbilago, orduan eta ozenago. Azkenik geure gelako atea ireki eta... NAZIAK!

Nadine Börne

1938ko azaroaren 7a

Nelly maitea:

Apaiz urde nazkagarri horiek salatu egin gintuzten azkenean! Bai, ikusi behar genuen, bai, apaizak betiere boterearen bila dabiltzala. Beren sermoietan eta esaten dute, bai, beti txikienari edo ahulenari lagundu behar zaiola, baina badaezpada ere boteredunaren morroi bilakaturik. Irabazitako tartatik zati ederren bat lortu nahirik, noski ez zelako ez, hutsaren hurrengoa izango bost familia judutar harrapatzea. Errekompentsa ederra lortuko zuten geure bizien truk. Orain, nire gelatik behatzen nituen kamioi ustel horietako baten barnean nago giltzapeturik, espetxeraturik, hainbat nazi ditugularik geure aldamenean suzko armekin seinalatuaz, betiere heriotzarekin amenazoka. Ez dakigu nora garamatzaten, ez eta zer egin diezaguketen ere, gauza bakarra dakigu denok. Bertatik bizirik ez garela itzuliko.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 11a

Nelly maitea:

Jada zurekin agurtzeko unea iristen ari zaidala koan nago, zure biziarekin amaitzekoa, nirearen antzera, biok laster agurtuko baitugu heriotza.

Oraintxe naiz iritsi Stutthofeko kontzentrazio-esparrura eta kamioitik lerroan aterarazi gaituzte indarkeria erabiliaz, aurretik eta atzetik soldadu naziak genituelarik arma bana harturik eskuetan. Gizonezkoak eta emakumezkoak banandu gaituzte lehenik, eta, ondoren lanerako balio dutenak eta ez dutenak. Ni, gurekin zetorren hirurogeita hamarren-bat urte zituen agure batekin naramate, nire familiatik urrun. Honela, azken muxua trukatuguz gozokiro, zilarrezko malkoez bustirik dugularik bihotza. Besotik heldu eta arrastaka naramate, garrasiz beteriko oihuak irteten direlarik geure ezpain biluzietatik. Azkenean, bakar-bakarrik espetxeratu naute leize ilun batean. Orduak eta orduak igaro dira, nire oroitzapen eta pentsamendu guztiak lanean, jirabiraka, ari ziren artean.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 12a

Nelly maitea:

Gaurko eguna umilagarria izan da benetan. Nazi batzuek esnarazi naute kolpeka, ostikoz lurrera botaraziz eta aurpegi guztia zauriz hornituaraziz. Ondoren, berehala, eserleku zahar batean jesarraziz naute eskuak, gurutzaturik, bizkarrean lotuaz. Segidan, batek plastikozko poltsa beltz bat sartu dit buruan eta ia ito arte eduki nau honela. Behin eta berriz estutu eta lasaituaraziaz. Bitartean beste bat, arropa eranzten hasi zait. Inpotentzia sentitzen

nuen neure erraieran, nahi eta ezina, hiltegi bidean doan animalia banintz bezala, pertsona izateko eskubiderik gabea, zer eta beraiek ez diren arraza batekoa, judutarra izateagatik. Jarraian, nire gorputza ukitzeari ekin diote. Pausu hotsak. Gehiago sartu dira gela ilunera, eta lan berberean hasi. Une batez denak joango zirela pentsatu dut, eta apur bat lasaitu naiz, baina ez. Buruko poltsa kendu didate eta begiak irekitzeko astirik gabe nire bi ur-jauziak lehortu dituzte, benda zati batez baliatuaz.

Sakon hartu dut arnasa. Ondoren eskuak askatu dizkidate, aulkitik altxa nadin, baina zoritxarrez ez da hor amaitu kontua. Eskuetatik zintzilikatu naute. Ondoren, denen eskuak nabaritu ditut neure gorputz biluzia ukitzen, laztantzen eta kolpatzen, bost ziren guztira gutxienez. Segituan, zorabiatu naiz, hiru bat ordu igaroko ziren gutxienez iratzarri naizenerako. Gorputz guztia nuen ubeldurez josia, denak min ematen zidan, ezin nuen mugitu. Jarraian, nire familiagan pentsatu dut, zer gertatuko ote zitzaien horrenbeste maite ditudan senitartekoei? Nik edukiriko baino patu hobea izan zezaten erregutu diot Jaungoikoari eta jarraian etsipenaren menpe, negar malkoei ezin eutsiaz, garrasika hasi naiz, eskuak burura eramanez. Zergatik hau guri? Ezer txarrik egin ez dugunoi? Orduan ohartu nahiz gorputz biluziaz gain ilerik ere ez nuela, ilea motz-motz moztu zidaten, konorterik gabe nintzenean, jada skinhead bilakaturik nengoen.

Nadine Börne

1938ko azaroaren 13a

Nelly maitea:

Hirugarren eguna jada ukuilu zikin honetatik mugitu gabe, biluzik, kolpez beterik, hotzez, belduz, uzkurturik. Borrero bat etorri zait goizean bisitan, nire azken orduak ditudala munduan ohartzazteko. Jada bost minutu besterik ez zaizkit gelditzen. Une honetan, erloju guztien orratzak gelditzea nahiko nuke, eta zoriontsu bizitu, nire familiarekin, hemendik urrun, geure mundu berria sortuaz. Baina ezinezkoa dela ohartzten naiz eraikin honetako oihuak entzuten ditudan bakoitzean, tiro soinuak entzuten ditudan bakoitzean, negar zotinez beteriko malko suiziden hotsak entzuten ditudan bakoitzean. Ni hemen bainago, heriotzaren korridorean, ate lodi hori, berriz noiz ireki zain, nire bila noiz etorriko zain. Ez dakit zer egingo didaten, baina kementsu azalduko naiz, ez dakit nora eramango nauten, baina harro sentituko naiz naizena izateagatik. Ez naiz sufrimendua aurpegian islaturik dudala irtengo, honela naziek nire heriotzarekin gozatu egingo baitute, ez, aurre egingo diet, harro, harro nire sinesmenarekin, harro nire kulturarekin, harro maite dudan herriarekin!

Azken agurreko muxuarekin agurtzen natzaizu.

Nadine Börne

“Nadine Börne neskatxa judua, gas kamara batean erail zuten 13 urte besterik ez zituela beste 100 judutarren alboan, 1938ko azaroaren 13an. Zianuro gasa erabili zuten preso hauek erailtzeko,

gas honek heriotza bizkor sortarazten du. Gorpu hauek, aurkitu eta aztertu ostean, 13 urteko neskak, aurretik tratu txarrak jaso zituela eta hainbat azterketaren ondoren, hil zen unean haurdun zegoela egiaztatu da.”